



FRANTZISKO SANTUAREN

IRUGAREN ORDENAKO

IKASBIDEA

IRUÑAKO KAPUTXINOTAN
1929

TV


32




IRATXE

LIBRERIA
ANTICUARIA

Monasterio Iratxe, 16
Pamplona/Iruñea



FRANTZISKO DEUNA



N-51289

F-51327

ATN

4432

FRANTZISKO SANTUAREN

IRUGAREN ORDENAKO

IKASBIDEA



IRUÑAKO KAPUTXINOETAN

1929

Nihil obstat
Fr. Damasus ab Inza, O. M. C.
Censor.

Imprimi potest
Victoriae, die 22 decembris 1928.
† **Matthaeus Episcopus**
Victoriensis

Imprimatur.
Fr. Ildefonsus a Ciáurriz,
Minister Provincialis.



Frantzisko Santuaren Irugarren Ordenako Ikasbidea

Iko. IKASKIZUNA.

*Irugarren Ordenan sartu nai det Kristau
osoa izateko.*

Zertarako jañi nau Jaungoikoak munduan?

Jaungoikoak munduan jañi nau, Bera emen maita dezadan, bere Aginduak eta ama Eliza Santuarenak beteaz eta gero, zeruan, Bera ikusiaz eta maitatuaz betiko zorionekoa izan nadin.

Zer esaten digu Sinismenak orain degun bizitzaz eta gero izan bear degunaz?

Esaten digu gutxiena uste degunean il be-
ar degula, il da bereala epaituak (juzgatuak)
izango gerala eta pekatu lañian iltzen bagera

inpernura botakogaituala Jaunak, eta bere grazian bagaude zerura eramango gaituala, baño pekatu ariñak eta pekatuen ondorenak garbitu beaía badegu Garbitokian lenago egon bearko gera.

Nolakoa izan oi da eriotza?

Eriotza geienetan bizitzaren antzekoa izan oi da; gaizki bizi izan diranetatik gutxi ontzen dira eriotz-orduan eta ondo bizi diranetatik ordu artan gutxi gaiztotzen dira.

Nere eriotza kristau on batena izan dedin, nere bizitza nolakoa izan bear da?

Nere eriotza kristau on batena izan dedin nere bizitza kristau on batena izan bear da, griña txaf guziak menderatzen ditudala eta Jaunari nere maitetasun osoa ematen diodala.

Zenbat eratakoak dira munduan bizi diran kristauen bizierak?

Iru eratakoak dira munduan bizi diran kristauen bizierak:

Lenbizikoak, Jaungoikoaren eta Ama Eliza Santuaren aginduak betetzeaz ajolik etzaienak dira;

Bigafengoak, agindu oiek betetzen dituzte, baño aginduak bakarik, eta betetzen dituzte

inpernura ez joategatik, ez Jaunari dioten maitasunagatik;

Irugañengoak, aginduak ez ezik Ebangelioko aholkuak (konsejoak) ere betetzera egiten dute, Jaunari dioten maitasunak, inpernura joateko bilduñak edo zerura joan naiak baño geiago, ortara mugitzen dituala.

Bai al dira munduan kristauak irugañen biziera ortara Jaunak deitzen ditunak?

Bai, badira munduan Jaunak biziera oso ortara deitzen ditun kristauak, eta auetakoak dira Frantzisko Santuaren Irugañen Ordenako bizierara deitzen ditunak.

II GAÑEN IKASKIZUNA.

Irugañen Ordena zer da?

Irugañen Ordena zer da?

Jaunak argitu ta mugituta, Asistar Frantzisko Santuak munduan bizi diran kristau guztiak donetzeko (santutzeko) jañitako alkartasun bat da Irugañen Ordena.

Zertarako jañi zuen Frantzisko Aita Doneak Irugañen Ordena?

Bere senideak Jaungoikoaren eta Ama Eliza Donearen aginduak oso-osoro bete di-

tzaten eta oñela Jesukristoren antz-irudiak izanaz, Eliza maitatuaz eta kristau-onbide guzietako egintzak egiñaz beren lagunurkoentzat jañabide ona izan ditezen jañi zuen Frantzisko Aita Doneak Irugañen Ordena.

Asisko Frantzisko Donearen semea al da Irugañen Ordenako senidea?

Bai, lenbiziko Ordenako praileak eta bigañen Ordenako monjak bezela, Frantzisko Donearen semea da Irugañen Ordenako senidea eta Frantzisko Doneari deitu bear dio «Frantzisko, gure Aita Donea».

Nor dira Irugañen Ordenako nagusiak?

Lenbizi Eñomako Aita Santua; gero gauza batzuetan Gotzai (Obispo) Jauna ta geienetan Frantzisko Aita Donearen lenbiziko Ordenako nagusiak eta berak bialdutako Begiratzaleak (Visitadoreak); azkenean Zuzendariak eta Ministroak.

Zergatik deitzen zaio Ordena?

Kristau osoak izateko Zuzenbide (Eñegla) bat betetzea agintzen duten kristauen alkartasuna dalako eta Ama Elizak izen ori eta mañ ori eman diolako deitzen zaio Ordena.

Bikaña al da Irugañen Ordena?

Bai: beste Elizako alkartasun (congregazio) guziak baño bikañagoa da eta senide asko ditu aldaretan. Oregatik Eromako Aita Santuak gora-goratu dute ta eskubide ta barkapenez aberastu ere bai, ta pañoki guzietan jartzea ta kristau on guziak bertan sartzea nai dute.

Nun ikasten da Irugañen Ordenako biziera?

Irugañen Ordenako Zuzenbide edo Ereglan eta Frantzisko Aita Donearen eta Irugañen Ordenako Santu ta Zorionekoen bizitzetan ikasten da Irugañen Ordenako biziera.

III'GAÑEN IKASKIZUNA

Nola egingo naiz Irugañen Ordenako senide?

Zer egiñ bear da Irugañen Ordenako senidea izateko?

Irugañen Ordenako senidea izateko iru gauza egiñ bear dira:

Lenbizikoa, Irugañen Ordenako soñekoa (habitua) artu;

Bigañena, egun ortatik asita etengabeko urte oso bat, Ikasurtea (Noviziaduko urtea) deritzaiona, egiñ;

Irugañena, urte ori igarota, Zuzendariari edo Batzañari (Juntari) ondo baderitzaio, bere buruaren Eskeñitza (Profesioa), Ama Eliza Doneak agintzen duan bezela, egiñ Jaunari.

Zenbat gauza bear dira Irugañen Ordenako soñekoa artzeko edo Irugañen Ordenan sartzeko?

Irugañen Ordenako soñekoa artzeko edo Irugañen Ordenan sartzeko zortzi gauza eskatzen ditu Ama Eliza Doneak:

Lenbizikoa, Irugañen Ordenan sartzeko eta bere Zuzenbidea betetzeko ziñezko gogoia;

Bigañena, Erlijiosoen Ordenatako edo beste Irugañen Ordenetako senide ez izatea;

Irugañena, amalau urte beteak eukitzea;

Laugañena, oitura onetakoa izatea;

Bosgañena, pake-zalea izatea;

Seigañena, Eñomako Elizak daukan Siñismeneko egi guziak osoro siñistea;

Zazpigañena, Eñomako Eliza Donearen esanak osoro betetzea edo ortarako gogo ona izatea;

Zortzigañena, emakume ezkonduak beren senañen baimena, era oneañ al baldin bada, izatea.

Nolakoa da Irugañen Ordenako seni- deen soñekoa?

Soñeko ori bañengo kuñun (eskapulario) ta lokañi (kordoi) txikia da. Kuñun ofek gogorazi bear dio irugañendañari Jesukristoren antzera bere burua ilduratu, apala izan eta mundua ezetsi bear duala, eta kordoi ofek gogorazi bear dio gorputzean izan bear duan garbitasuna eta Jesukristo, Gure Jau-naren, neke-miñak.

Noiz eraman bear da soñeko ori?

Artzen duan egunetik asita, beti eraman bear du soñeko ori Irugañen Ordenako seni-deak. Bolada batez eraman gabe utziko balu, añazoi egokiz ezpada, Frantzisko Aita Donearen onespenik (bedeinkaziorik) ezluke artuko eta Irugañen Ordenako barkapenak ez lituzke irabaziko. Lenbiziko kordoi ta eskapulario bedeinkatuak uñatzen zaizkionean, beñiak bedeinkatu gabe jañi ditzazke.

Zer egiñ bear du Irugañendar gaiak (novicioak) ikasurtean?

Irugañendargaiak (novicioak) ikasurtean iru gauza egiñ bear ditu:

Lenbizikoa, Irugañen Ordenako Zuzenbi-

de (Eregla), Ordena onen eskubide ta barkapenak ta kristauen animetan Ordena onek erre ta azi-erazi nai dituan onbide ta oitura onak ondo ikasi;

Bigarrena, Irugarren Ordenak ilabetero goiz eta atsaldetan edo beste alditan egiten dituan elizkizunetara eta Zuzendariak irugarrendargaiantzat ematen dituan erakusaldietara etofi;

Irugarrena, Irugarren Ordenako Zuzenbideak agintzen duana betetzen eta jarraibide (ejemplo) ona ematen alegindu.

Zer da Irugarren Ordenako Eskeñitza?

Kristauak Jaungoikoari itzez egiten dion eta Ama Eliza Doneak bere izenean artzen duan agintza nagusi (solemne) bat da Irugarren Ordenako Eskeñitza. Eskeñitzean agintzen du Irugarren Ordenako senideak, ez pekatuaren azpian, baizikan bere itzari zor dion leialtasunez Jaunaren Legeko ta Ama Eliza Donearen Aginduaz gañera, Irugarren Ordenako Zuzenbidearen Aginduak eta Begiratzaileak (Visitadoreak) Zuzenbidearen kalte egindako utsegiteengatik ematen dion ordainna (penitentzia) betetzea.

Irugañen Ordenako Zuzenbidearen aginduak pekatuaren azpian beartzen ez padute ere, oiek austeia ez al da iñoiz pekatua izango?

Bai, Irugañen Ordenako aginduak austeria zabarkeriak, gizonenganako begiramenduak, lasaikeri edo nor bere burua ilduratu naiezak, agindu oiek gutxitan artzeak ta beste oñelako griña edo añañoi gaiztoak irugañendaña mugitzen dutenean, pekatua egiten du eta pekatu ori, añaña geien-geienetan, aitorpen gaia da.

Noiz egin bear da Irugañen Ordenako Eskeñitza?

Soñeko artzearen urtebete uñengo eguneraño ezta egiñ bear Irugañen Ordenako Eskeñitza. Iltzeko añañkura etofiko balitz ordea Irugañendaña gaia, eskeñitza egin lezake, baño soñeko artzearen urtea betetzen danean beñitu beañko luke sendatu ezkeru.

Zer ontarteak dakazkio irugañendar beñiari Irugañen Ordenako Eskeñitzak?

Iru ontarte aundi dakazkio:

Lenbizikoa: Biziera beñi santu bat artzen du irugañendar beñiak eta biziera ortako legeak betetzera egiten badu, Jaunarengan-

dik bere anima santutzeko grazi berarizkoak iritxiko ditu;

Bigarrena: Eskeñitzean agindutakoa betetzen badu, Ama Eliza Doneak Jaunaren aldetik betiko bizitza agintzen dio;

Irugarrena: Eskeñitzagatik Frantzisko Aita Doneak semetzat artzen du eta prantziskotar guzien senide egiten da. Senide ona bada beriz, Frantzisko Aita Donearen eta prantziskotar santuen laguntza berezia izango du.

Eskeñitza egiñ ondorean, nola begiratu bear dio bere buruari Irugarendar berriak?

Jaunaren menpeko gauzak, Berari naitsez emanak bezela, begiratu bear ditu bere anima ta bere gorputza, bere gogoeta (pensamentu), itz eta egite guziak eta Jesusen Biotzarekin batean Jaunaren naia betetzen eta pekatutik igesegiten alegindu bear du; eta jaiegun aundietan, batez ere Jaun artu ondorean, bere Eskeñitza befitu bear du.

IV IKASKIZUNA.

Irugarren ordenako zuzenbidearen aginduak.

Zer aginduak betetzea agintzen du Irugarren Ordenako senideak?

Iru aldetako aginduak betetzea agintzen

du Irugañen Ordenako Senideak Eskeñitzean: Lendabizi, Jaungoikoaren Legeko Aginduak: Bigañen, Ama Eliza Donearenak; Irugañen, Irugañen Ordenako Zuzenbidearen agindu bereziak.

Zenbat dira Irugañen Ordenako Zuzenbidearen agindu bereziak?

Ogeita bat dira Irugañen Ordenako Zuzenbidearen agindu bereziak.

Lenbiziko bederatzia pekatutik eta pekatu-añiskutatik igesegiteko zenbait bide artzeari dagozkio; ufengo seiak Jaungoikoaren maitasunari ta azkengo seiak lagun urkoaren maitasunari.

Zein dira pekatutik eta pekatu-añiskutatik igesegiteko bideak artzeari dagozkionak?

Pekanutik eta pekatu añiskutatik igesegiteko bideak artzeari dagozkionak auexek dira:

Lenbizikoa, bañengo kutun (eskapulario) ta lokaña (kordoia) eramatea;

Bigañena, jazkeran eta beste bizierako gauzetan nor bere malari dagokion neña eukitzea;

Irugañena, dantza, antzeski, zine ta edozer ikusgai gaiztoetatik igesegitea;

Laugarrena, jan-edanetako geiegikerietatik aldegitia eta jan-edanetan neuria izanaz;

Bosgarrena, Frantzisko Aita Donearen eta Sortze Garbiko Ama Birjiñaren aurreko egunetan barau egitea;

Seigarrena, liburu eta izparringi (periodiku) txarrik ez artzea eta bere mendekoai irakurtzen ez utzitzea;

Zazpigarrena, testamentua garaiz, lenbailen, egitea;

Zortzigarrena, Begiratzaleak (Visitadoreak) ezarritako ordaña (penitentzia) betetzea;

Bederatzigarrena, Zuzenbidea eziñ bete danean Zuzendariari legazka (dispensa) edo aldaketa (conmutazioa) eskatzea.

Zein dira Jaungoikoaren maitasunari dagozkionak?

Jaungoikoaren maitasunari dagozkionak **auexek** dira:

Lenbizikoa, ilabetero gutxienez aitortuta jaunartzea eta atsaldeko elizkizunera edo Zuzendariak esandako beste edozeñerabiltzea;

Bigarrena, Jaungoikozko Añendi (oficio divino), edo Ama Birgiñaren Añendi Txikia (oficio Parvo), ala amabi Aita Gure, amabi Agur Mari eta amabi Gloria Patri egunero esatea;

Irugařena, egunero al baldin bada Meza santua entzutea;

Laugařena, jan aurretik eta jan ondorean otoitza egitea;

Bosgařena, gauero bařengo aztermena (esamiņa) egitea.

Zein dira lagun urkoaren maitasunari dagozkionak?

Lagun-urkoaren maitasunari dagozkionak auexek dira:

Lenbizikoa, lagunurkoakin pakea ta maitasuna izatea, eztabaidetatik igesegitea ta besteak paketzeko alegiņak egitea;

Bigařena, beren bizitza osoan erlijiozko egintzetan eta egite onetan jařaibide (ejemplo) ona guziai ematen lenenak izateko alegiņak egitea;

Irugařena, Irugařen Ordenako beartsu, gaxo ta elizkizunai ukarez (limosnaz) lagun-tzea;

Laugařena, Buruak (ministroak) berez edo beste batez senide gaxoak ikustea eta sakramentuak garaiz artzeko oartzea;

Bosgařena, Irugařen Ordenako ildakoen iġetetara joatea, eta beren animen alde beiņ jaunartzea eta eřosario bat esatea;

Seigařena, batzařean emandako eginpi-

deak (carguak) afazoirik gabe ez ukatzea eta oiek ondo betetzea.

V. IKASKIZUNA.

Pekatu eta pekatu-ariskutatik igesegiteari eia ortarako bideak artzeari dagozkion aginduetaz.

Zer da garbaia (penitentzia)?

Pekatuak eta ontasunean epeltasuna animatik kentzera egiten duan onbide bat da garbaia (penitentzia).

Nola egingo dira garbaizko (penitentziako) egintzak?

Pekatu egiñaz damuturik, asmo sendo bat arturik, aitorturik, oben-nekea (satisfacioa) beterik eta pekatu bideetatik iges-egiñik egingo dira garbaizko (penitentzizko) egintzak.

Noiz izango da garbai ori osoa?

Garbai ori osoa, epeltasunik gabea, izango da, kristauak Jaunari dion maitasunez pekatu lañiak ez ezik, pekatu ariñak ere, kentzera gogo guziz egiten duanean.

Zergatik deritzaio Irugañen Ordenari Garbaiko (penitentziako) Ordena?

Irugañen Ordenari Garbaiko (Penitentziako) Ordena deritzaio bere senideak, penitenti osoa egitera deitzen ditualako Jaunak. Oregatik soñeko latzez, Penitentziako soñekoz, jazten dira.

Zer griña txarrek menderatzen dute gizonaren biotza?

Gizon geienen biotzak afokeriak, diru ta ondasunen zaletasun geiegiak eta loikeriak menderatzen dituzte.

Nola kendu bear du biotzetik Irugañen Ordenako senideak diru ta ondasunen zaletasun geiegia?

Zuzenbideak ematen dituan iru agindu auek beterik:

Lenbizi, soñekoak eta etxeko tresna ta gauza guziak ez balio geiegikoak, baizikan bere mañari dagokion erakoak ibilirik;

Bigañen, ondasunetatik biotza askatzeko, testamentua, zoñak ordainduta, eta familikoen, lagunurkoen eta Irugañen Ordenaren onari begiratuta lenbailen egiñazo. Aldatu nai badu aldatzeko bidea gelditzen zaio.

Irugañen, ukañak (limosnak) bere beaen eta ondasunen neurian egiñaz.

Nola zaitu bear du Irugañen Ordenako senideak garbitasuna?

Zuzenbideak ematen dituan beste zazpi aginduak beterik zaitu bear du:

Lenbizi, soñekoetan, emakumeak batez ere, eratasuna (modestia) eukiaz;

Bigañen, gauezko edo toki itxitako dantza lotuetatik ez ezik, baita ere beste agiriko guzietatik (walse, charleston eta beste gaurko geien-geienetatik) iges-egiñik, animarentzat añisku aundikoak dirata;

Irugañen, zine, antzest toki (teatro) eta beste edozeñ ikusgai gaizto edo ariñetatik igesegiñaz, oiek ere anima pekatu-añiskuan jartzen baidute;

Laugañen, jan-edana neuriz artuaz;

Bosgañen, izketan eta ibileratan kristauari dagokion era ona izaten eztan jan-edan-tokietatik iges-egiñaz;

Seigañen, Ama Eliza Donearen barau eta aragiuzteen gañera, Frantzisko Aita Donearen eta Sortze Garbiko Ama Birjiñaren, prantziskotar guzien zaindarien, aurreko egunetan be-roien laguntza irixteko barau egiñaz;

Zazpigañen, liburu, izpañgi (periodiku) ta aldizkingi (revista) txañik ez irakuñiaz.

Garbitasunari bakarrik kalte egiten al diote ofelako paperak?

Garbitasunari eta sinismenari ofelako paperak kalte aundia egiten diote. Ofegatik Zuzenbideak irugarfendarai agintzen die Aita Santuak edo Gotzai (obispo) jaunak debekatu-tako paperik, erlijiozko gauzetaz itzegiten badeute beren baimena ez dutenik, eta azkenean sinismen eta oitura onen kalte (gaurko nobela ta paper geienak bezela) dijoaztenik ez irakurtzeko, beren etxetan sartzen eta beren seme ta mendekoai irakurtzen ez uzteko ere.

Zer aolku ematen du Zuzenbideak beste barau ta aragi uzteaz?

Goratzen ditu ostiraletan Jesukristoren Nekaldiaren aintzan barau egiten duten senideak eta asteazkenetan aragia uzten dutenak.

Nola garaitu bear du irugarfendarak arokeria ta berekoitasuna?

Bere arokeria garaitu bear du:

Lenbizi, Jaungoikoaren eta Ama Eliza Donearen aginduak beteaz;

Bigafen, Eretore jaun, Aitorle (confesore), nagusien guraso, senar ta beste nagusien aginduak, Jaungoikoaren Legearen kalte ez dijoazen gauzetan, egiñaz;

Irugañen, Irugañen Ordenako Zuzendariaren eta Batzañaren erabakiak eta batez ere Begiratzalearen (Visitadorearen) aginduak ondo artuaz eta beteaz.

Auei guziei Jaunaren ordezkoi bezela begiratu bear die eta beren esanak zearo, pozez, ixilik, egiñ bear ditu.

Zer bide ditu Irugañen Ordenak bere senideai bide txarretatik aldegiñerazteko eta Zuzenbidea beteerazteko?

Beste bideen artean dauka Frantzisko Donearen Lenbiziko Ordenakoen erlijiosoak Irugañen Ordenako senideai egiten dieten ikustaldia (visita). Ikustaldi ontan jakiten dituzte auen egiriko utsegite aundiak edo Zuzenbidearen kalte ta maiz agindako utsak; eta irugañendañak Begiratzaleak emandako oarfpide ta obeneke (penitentzia) artzera bear turik daude.

Zer egiñ bear du irugañendañak Zuzenbideko agindu bat edo beste edo Zuzenbide osoa ezin bete duanian?

Garai ona daukanean legazka (dispensa) edo aldaketa (conmutazioa) eskatu bear dio Begiratzale edo Zuzendariari. Gañerakoan, legazka edo aldaketa eskatu gabe zabarkeriz

edo ezezpenez Zuzenbidea betetzen ez-tuan irugañendañak kristau-osotasuna ez-tu iritxiko.

Nola indartuko du Irugañendañak bere gogoa Irugañen Ordenako eta bere bizitza-ko gurutzea ondo eramateko?

Gogoa makaltzen zaionean, Jesukristo Gurutziltzatuari begiratu bezaio eta gogora beza zeruan sartzeko, eta Jauna osoro maitatzeko bere pekatuen eta mundu guzikoen garbaia (penitentzia) Jesukristokin batean egiñ eta pekatubide ta griña txar guziak utzi bear dituala.

VI. IKASKIZUNA.

Jaungoikoaren Maitetasunari dakoñkion aginduetaz.

Bere burua ilduratuta gañera, zer egin bear du irugañendañak Jauna maitatzeko eta Frantzisko Donearen egiazko semea izateko?

Jaungoikoaren eta Ama Eliza Donearen aginduak bete ez-kero, nork bere bizierako eginbeañak betetzea jaierarik onena da; baño Jauna maitatzeko eta bere burua santutzeko irugañendañak eguneroko erlijiozko eginkizunak, ilabeterokoak eta aldi guzietakoak egiteko alegiña egin bear du.

Zer erlijiozko egintza egiñ bear ditu egunero?

Sei erlijiozko egintza egiñ bear ditu egunero:

Lenbizi, osasuna izan ezkeror ordu jakiñ ta egoki batean jeiki ta, gurutze santua egin Jesukristoren pensamentu, itz eta egitekin batean bere egun guziko pensamentu, itz eta egiteak Jaunari eta Ama Birjiñari eskeindu eta egun ortako barkapenak irabazteko asmoa izan;

Bigarren, Jesukristoren Nekaldiaz, ala eriotzaz ta eriotz-ondoko gertakizunez, ala erlijiozko beste gai batez, gutxienez ordu laurdeneko gogalpena (meditazioa) elizan edo etxean egiñ;

Irugarren, al baldin bada meza santua entzun eta Jauna artu;

Laugarren, aldi batez edo zatika Ama Birjiñaren Afendi Txikia (Oficio Parvo) ala amabi Aita Gure, amabi Agur Mari ta amabi Gloria Patri Jesusen Biotzaren eta Ama Elizaren otoitzakin batean esan;

Bosgarren, lan guzien aurretik eta ondotik, batez ere jan aurretik eta ondotik, otoitza egiñ;

Seigarren, al bada Ama Birjiñaren Errosario santua esan;

Zazpigarrena, gauero berengo aztermena (esamiña) egiñ.

Zein da otoitz auetatik bikañena eta aurrena?

Otoitz auetatik irugarrendarentzat aurrena eta Jaunarentzat edereña Ama Birjinaren Añendi Txikia (Oficio Parvo), ala amabi Aita Gure, amabi Agur Mari, amabi Gloria Patri oiek dira. Miñ edo eritasunez, edo lan aundi-aundi batez ezpada, eztira utzi bear; betarik eztanean beste otoitzak au baño lenago utzi bear dira.

Nola esan bear ditu irugarrendarak Ama Birjinaren Añendi Txikia (Oficio Parvo) ala amabi Aita Gure, amabi Agur Mari ta amabi Gloria Patri oiek?

Esan bear ditu:

Lenbizi, areta aundiz eta Jauna aurrean dagola gogoratuaz;

Bigarren, Aita Gure, Agur Maria ta Gloria Patri guziak batean esan ditzazke, baño obe da iru zatitan, goizean, atsaldean ta gabe-an Jesusen Nekaldiko pauso bana gogoraturik esatea.

Nola egiten da gogalpena (meditazioa)?

Gogalpena (meditazioa) ondo egiteko zazpi gauza egiñ bear dira: gurutze-santua eginda Jaunaren aurrean gaudela sinistu; Jesukristoren Nekaldiko pauso edo sinismeneko beste egi edo gertakizun bat irakurri; egi auek gogoan ibilirik jaunmaitetasunezko, pekatuen damutasunezko eta beste onbideetako egin-tzak egin; asmo onak, batez ere oitura txarren bat kentzeko edo onbide batean aritzeko, artu; asmo oiek betetzeko laguntza, batez ere Ama Birjiñaren, Jose Santuaren eta Frantzisko Santuaren bitartez, Jaungoikoari eskatu.

Zertarako da gaueko aztermena (esamiña)?

Eguneko pekatuetaz damutzeko eta urango eguneko asmo onak artzeko da gaueko aztermena (esamiña).

Nola egin bear da?

Onelaxe egin bear da: Jaunaren aurrean jarrita, pekatuak gogoratzeko argia eskatu bear zaio Jaunari; gero eguneko pekatuak eta Zuzenbideko arauak eta asmo onak bete diran ala ez ikusi; azkenean Jauna irainduaz (ofendituaz) damutu eta asmo onak beritu ta berroiek betetzeko laguntza Jaunari eskatu.

Zer esaten didazu egunero Meza entzute eta Jaunartzeaz?

Oiek dirala irugañendañak egin ditzazken egitekorik bikañenak ta bedeinkazio ta grazi ugarienak ekañiko dizkiotenak eta alegiñak egin bear dituala alik obekiena egunero meza entzuteko, al badu meza laguntzeko eta Jaunartzeko. Ori eziñ duanean lurbira guziko mezak entzuteko eta Jauna artzeko gogoia Jaunari agertu bear dio.

Zer agintzen dio Zuzenbideak Irugañen Ordenako senideari aitorpenaz eta Jaunartzeaz?

Īero aitortzeko eta Jaunartzeko agintzen dio eta, al badu, beste senide guziekin ĩleroko Irugañen Ordenako elizkizunean Jaunartzera egin bear du. Eztu gañera aztu bear Elizaren gogoia dala kristauak alik maizena sakramentu oiek artzea, asteoro gutxienez aitorturik egunero Jaunartzea.

Zer agintzen dio Irugañen Ordenako senideari Zuzenbideak ziñ edo juramentuaz eta itz itxusiaz?

Agintzen dio Jaunaren izenari zor dion begiramentuagatik ziñ edo juramenturik ez egiteko, sinismen edo garbitasunaren kalte

dan itz edo jolas itxusirik ez esateko eta abesti (kantu) itxusirik ez abesteko, baizikan beren itzetan beti alaiak, bañan garbiak, izateko.

Nola gorde ta geituko du irugarrenda- rak bere jaunmaitetasuna?

Munduko txorakerietatik iges egiñaz; bere biotzeko bakartadean Jaunari edo Santuei maitasunezko, itxaropenezko, sinismeneko eta beste onbidetako otoitz laburak (jaculatorias) esanaz; Ebanjelio Santua, Jesukristoren, Ama Birjiñaren eta Santuen bizitzak edo beste liburu onak (Jesukristoren Imitazioa, Salestar Frantzisko Santuaren Deboziozko Bizitzarako Sañera, Teresa Santuaren liburuak eta abar) añetaz irakuriaz; ilero egun batean geldiro bere animako zerurapenean eta kristau-osotasunean pensatuaz eta oriaz aztermena egiñaz; urteoro zortzi egunetako gogo iñarkunak (ejercicioak) egiñaz. Auxek dira grazia ta jaunmaitetasuna gordetzeko ta geitzeko bide egokiak.

Zer jaiera (devozio) izan bear ditu Irugar- garen Ordenako senideak?

Irugarendar guziak jaiera auek izan bear ditu Frantzisko Donearen antzera:

Lenbizi, maitasun bero-beroa Aldareko

Sakramentu Santuan dagon Jesusen Biotzari eta Jesusen Nekaldiari (Pasioari); eta maitasun au agertu bear dute, bai Meza Santua maiz entzunaz, bai bederatzi lenbiziko ostiralak sailean egiñaz, bai Kalbarioak alik maizena egiñaz, bai Jauna sañitan artuaz eta Sakramentu Santuaren ikustaldia al izan ezkerro egunero egiñaz;

Gero, maitasun xamur-egizkoa izan bear diote Ama Birjiñari, bere laguntza beti eskatzen diotela, bere antzera bizitzera alegiten dutela eta al badute egunero Eñosario Santua, iru Agur Mariak, Angelus eta beste otoitzak esaten dizkiotela eta bere jaiak jaunarturik egiten dituztela;

Azkenean, maitasun aundia izan bear diote Asisko Frantzisko Aita Doneari, Jose Doneari eta Irugañen Ordenako Zaindari, Prantziko Eñege Luis eta Ungriako Isabel Santuei.

VII. IKASKIZUNA.

Lagun urkoaren maitetasunari dagozkion aginduetaz.

Nun azaldu bear da irugañendañen jaunmaitetasuna?

Kristauak Jaunari dion maitetasuna lagun urkoari dion maitetasunean agertzen da, lagun-

kristaua Jesusen Biotzeko zatia bezela baita; eta lagun urkoa ziñez maitatzen agertu bear du irugañendañak bere jaunmaitetasuna.

Nola azaldu bear du lendabizi irugañendañak lagunurkoaganako maitetasuna?

Bere lagunurkoaganako maitetasuna azaldu bear du lenbizi guziaz onginaia ta pakea agertuaz, ez iñoñez egizko añaioirik gabe gaizki oldoztuaz (pensatuaz), ez iñori gaizki naiaz, ez iñoren gaitzez poztuaz, ez iñorengatik gaizki itzegiñaz; baizikan guzien alde eta guziekin, etsaiekin ere, ondo itzegiñaz, guziei on egiñaz eta guzien alde otoitzak Jaunari jasoz.

Nola geiago?

Irugañendar eta beste kristau asefetuaren artean pakea jañiaz. Ortarako zuurtasun eta begirapen aundia bear du.

Askotan itz gozo batzuk naiko dira; bestetan, oarpide on bat; geienetan asefetuaren asañaldia igaro arte, iñoren alde atera gabe, ixilik egotea obe da eta gero pakezko itzak bati edo besteari esatea.

Nola lagundu bear die Jaungoiko Gure Jaunari, apaiz jaunai ta misiolariari animak zeruratzen?

Ama Eliza Donearen, pekatarien, sinis-

gabeen alde otoiz egiñaz; apaizen mendeko maitetsuak izanaz eta dotriña erakusten, zezi-oak konpontzen, gaxoak ikusten, beartsuai laguntzen eta beste erlijiozko ta erukitasunezko lanetan berai lagunduaz.

Nola lagundu bear die batez ere?

Lagundu bear die batez ere pañoki guziari ta jende guziaz *jañabide* (*ejemplo*) ona emanaz, guzien aurrean, iñoren bildur ta begiramenturik gabe, Jaunaren maitetasunez, Jaungoikoaren Legeko Aginduak, Ama Eliza Donearenak eta Frantzisko Donearen Zuzenbidea betetzen dutela.

Nola emango du *jañabide* (*ejemplo*) on ori?

Jañabide on ori emango du:

Lenbizi, Jaungoikoari dagokionez, jaiegunak osoro santutuaz eta elizkizun guzietan lenena izanaz;

Bigarren, bere bizierako eginkizunetan langile, zintzo ta eratua, erlijiozko eginkizunak utzi gabe, izanaz;

Irugarren, lagun urkoari dagokionez, senar-emazteak elkarrekin leialak eta maitetsuak izanaz; gurasoak bere seme alabak ondo aziaz; seme-alabak gurasoengana eta zañagoengana

mendetasuna, maitetasuna ta begirapena gordeaz; nagusiak, moñoi ta langilekin aseñerik gabe ibiliaz eta beren sariak emanaz; etxekoandreak guziekin eramankorak, begiratuak, izanaz eta moñoi-neskamei erlijiozko egitekoak egiteko tarteak utziaz; moñoi-neskameak befiz esanekoak eta arduratsuak eta saltzaleak, guzientzat maitetsuak, gezuñik gabekoak, zilegi eztan irabazirik nai ez dutenak izanaz.

Eñuki-egintzak, nola bete bear ditu?

Len esandakoen gañera auxe egiñaz:

Lenbizi, beartsu guziaz, batez ere Irugañen Ordenako beartsuei ukalez (limosnaz) lagunduaz. Irugañen Ordenako beartsu, elizkizun ta beste gastuei laguntzeko ilero gutxienez ukala egin bear du.

Bigañen, ildako senideen iletetara joanaz eta, Garbitokian badaude, andik atera ditezen bein Jaunartuaz eta eñosario bat esanaz.

Zer egiñ bear dute Buruak (Ministroak) gaxoen alde?

Irugañen Ordenaren izenean senide gaxoak ikustera, kristauzko itzez atsegintzera joan bear dira. Anaiengana eta Afeba-burua

añebengana, Anaia burua eta, bear bada, sakramentuak garaiz artzeko esan bear diote. Berak joan eziñ badute, beste bat bere ordeztialdu bear dute.

Zer Agintzen die irugarren Ordenako Zuzenbideak nausitza ematen zaien senideai?

Agintzen die añaizirik gabe auteskundietan emandako eginpideak (carguak) ez ukatzeko eta eginpide auen egiñ-beaak alik ondoena ikasteko eta betetzeko, bai Zuzendaria, bai Buruak (Ministroak), bai Irugarrendargaien Irakasleak (Maestros de Novicios), bai beste gañerakoak, ontatik baidator Irugarren Ordenaren añaerapena.

VIII. IKASKIZUNA

Irugarren Ordenako eskubide ta barkapenaz.

Zer eskubide ta barkapenak ditu Irugarren Ordenako senideak?

Eskubide asko ta aundiak ditu Irugarren Ordenako senideak:

Lenbizi, Frantzisko Donearen lenbiziko Ordenekin bat egiten du, Nagusi berdiñak dauzka;

Bigarren, Frantzisko Donearen praileen Ordenetako (32.000 lagun), monjeen Orden eta Kongregaziotako (62.000) eta munduko



Irugañen Ordenako (3.000.000) senideak elkarren egite on eta merezimentutan zatia dute eta barkapen berdiñak dituzte;

Irugañen, Frantzisko Donearen Ordene-tako senideak urtean a) *sei Aita Santuaren onespen* (bendizio) *barkapen osoakin*, b) *ogeita amaika askapen oso* (absolución general) *barkapen osoakin*, c) *eta barkapen oso eta ez oso asko* dituzte.

Laugañen, Irugañen Ordenako senideak elizinguruetan (prozesiotan), alkartasuna bezela beren soñekokin eta gurutzea daramatela dijoazenean, Elizako alkartasunen artean lenbiziko tokia dute.

Zer da Aita Santuaren onespena (bendizioa) eta zer indar dauka?

Aita Santu berak edo bere ordeez beste batek ematen duan bedeinkazio bat da. Sinismen eta jaierez artzen bada, pekatuaz damutzeko eta pekatua goñotatzeko grazia irixten du. Gañera, onespen ori artuaz barkapen oso bat irabazten da.

Zer da askapen osoa?

Irugañen Ordenako askapen osoa Jaunaren laguntza irixteko Ama Eliza Donearen izenean ematen dan onespen (bedeinkazio)

bat da. Bedeinikazio onekin batean barkapen oso bat irabazten da, irabazteko bear dana bete ezkerro.

Zer dira barkapenak (indulgenziak) eta zer indar dute?

Mundu ontan ala bestean aitortzan edo barkatutako pekatuengatik animak bolada batez eraman bear luken zeapenaren (castiguaren) zati bat edo zeapen osoa barkatzen dioten grazi batzuek dira.

Zer egiñ bear da barkapen oso guziak, bai Aita Santuaren Bedeinkaziokin eta Askapen Osokin batean ematen diranak, bai beste gañerakoak, irabazteko?

Aita Santuaren Bedeinkaziokin eta Askapen Osokin batean artzen diranak eta beste asko ere irabazteko lau gauza bear dira: 1.^a Jaungoikoaren grazian egotea; 2.^a Barkapenak irabazteko asmoa izatea (Asmo au goizero beñitzea naikoa da); 3.^a Barkapen osoa irabazi bear dan zortzi egun aurretik edo ondotik aitortzea; 4.^a Barkapen ori jafia dagon aurreko egunetik asita urango zortziurteneko edozeiñ egunean jaunartzea; 5.^a Aita Santuaren alde otoitz egitea.

Beste barkapen oso asko irabazteko bal-

dintza (condicio) oietzaz gañera eliz-ikustaldia bear da.

Zer barkapen berarizkoa, Frantzisko Aita Doneak berak iritxia, dute Frantzisko Donearen irugañendañak?

Portziunkulako Barkapena deritzaiona. Dagonilaren (Abuztuaren) lenbiziko eguneko eguerditik bigañen eguneko gaberdiraño edo ufengo larunbateko eguerditik igandeko gaberdiraño Pañoko Jaun edo Elizeko Eñetoreak ala erabakitzen badu, len esan dan bezela aitortuaz eta jaunartuaz, Frantzisko Donearen praile eta monjetako elizetan beste kristau guziak bezela, edo Irugañen Ordenak bere elizkizunak egiten ditun elizetan, edo seridetzarik eñian ezpadago pañokian, irugañendañak elizan sartu ta sei Aita Gure, sei Agur Mari ta sei Gloria Patri esan ta ateratzen diran bakoitzean barkapen oso bana irabazi ditzakete, lenbizikoa nork bere animaren alde eta beste gañerakoak Garbitotiko anima bat edo besteren alde.

Jaungoikoaren grazian egotekin eta barkapenak irabazteko asmoa izatekin bakañik irabazi diteken barkapenik ez al dauka Irugañen Ordenak?

Bai, baditu ta ugari gañera: 1.^a Sei Aita

Gure, sei Agur Mari ta sei Gloria Patri, bost Eliza Donearen onerako eta bat Aita Santuaren asmoen alde, nunnai esatekin, irugañendak Eñoma-Portziunkula-Konpostelako elizetan eta Jerusalengo Toki Santuetan peregrinazioan ibiliko balitz aña barkapen irabazten ditu. Ugari dira, egun batzuetan bestetan baño ugarigoak. Osoak bakarik bai omen dira urte bañuan, Alfonso Santuak dionez, bost-eunda ogeita amairu.

2.^a Ama Birjiñaren Zazpi Alaitasunen aintzan, zazpi misteriozko Eñosarioa ta bi Agur Mari gañera nunnai esanaz ta Aita Gure bat Aita Santuaren alde erantsiaz barkapen oso bat irabazten du. Laugañen gertakizuna (misterioa), Mago jakintsuen agurtza (adorazioa), da, sei-gañena, Jesusen Piztuera ta zazpigañena, Andre Mariaren jasokundea, beste gañerakoak pozezko gertakizunak (misterioak) dira.

Gañera Gurutzebideko barkapenak elizan ezinda, nunnai ortarako bedeinkatutako gurutzekin, beste kristauak bezela, irabazi ditzazke.

Ainbeste Aita Santuaren onespen, askapen oso eta barkapen ez al ditu irugañendak aintzakotzat artu bear?

Bai, al ditun barkapen oso geienak Garbitokiko animak su aietatik ateratzeko iraba-

zi bear ditu. Eta ortarako aginduak dauden egitekoak ezin baditu bete, beste batzuetan aldatzeko aitorleari eskatu bezaio. Eta elizan oi bezela artzen ez dituanean, askapen oscak eta Aita Santuaren Bendizioaren ordezkari askapen osoa ere emateko aitortzean aitorleari eskatu bear dio.

Zer agindu zion Jesukristo, Gure Jaunak, bere iru Ordenetaz Frantzisko Aita Doneari?

Jesusen Biotzak Alakoketař Margarita Doneari eta Karmengo Ama Birjiñak Simon Stock Doneari bezela, Jesukristo, gure Jaunak, egin zizkion bere agintzak Frantzisko Doneari esanaz:

1.^a Bere iru Ordenetako seme-alabak, ongileak, egizko maitatzaileak zeruratuko direla. pekatariak badira il baño len damuturik edo aitorturik; bere Ordenen etsaiak beřiz Jaunak zeatuko dituela;

2.^a Bere Ordenetako senide soñeko santua eramaten duanik ez tala pekatu lařian ilko; baizikan gaizki bizi nai dutenak, Ordenetik aterako direla;

3.^a Frantzisko Donearen Zuzenbidea betetzen dutenai Jaunak pekatu lařian ez erortzeko eta pekatu-bideetatik iges-egiteko argi

ta atsegiñ berarizkoak emango dizkiela, santuak bezela ilko dirala eta Garbitokira (Purgatorio) eztirala joango;

4.^a Frantzisko Donearen Ordenak munduazkeneraño iraungo duala.

Gañera, idazle jakintsuak diotenez, Frantzisko Donea bere iru Ordenetako seme eta maitatzaileak Garbitokitik ateratzera jexten omen da Portziankulako egunean (Abuztuaren 2 gañenean), bere Zauri Doneen Irarpenekoan (Agoñaren 17 gañenean) eta bere Eriotzarenean (Uñiaren 4 gañenean).

*Goratua izan bedi Jesukristo Gure Jau-
na, eta bere jaraile zintzo, Frantzisko Do-
nea.*



